

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Harrapatzen bazaitu...

NOR HARRAPATUKO du zezena uztailaren 7an? Iruñeko karrketan bederen ez dadila inor izan, behintzat modu larrian. Gainerakoan, lan munduan bereziki, egun horretatik aurrera zezen asko geratuko dira libre Hego Euskal Herri osoan, eta hauek langile asko harrapako dituzte, aldapan gora gainera, Santo Domingon bezala, zezena indartsu eta korrikalaria arnastean dabiltzala.

Arazoa aste honetan konpon-tzen ez bada behintzat, ehunka mila langile geratuko da hitzarmen kolektibo gabe. Espainiako Langileen Estatutuaren estalpea izango da gutxieneko babesgunea, hau da, langileak ezingo duela kobratu gutxieneko lan-sariaren (645 euro) azpitik eta inork ezingo duela behartu asteen 40 orduetik gora lan egitera. Gainerakoan, langilea enpresariaren mende geratuko da. Hori da egiazko aukeretako bat eta uztailaren 7tik aurrera geratzen den indefinizio egoerak eta beldur-rak negoziatio kolektiboan era defentsiboan egitera behartu ditu sindikatuak.

PPren Gobernuak 2012ko otsailean onartu zuen Lan Erreformak ekarri du egoera hau. Ordura arte, lan hitzarmen bat lotzen zenean, honek indarrean jarraitzen zuen aldeek beste bat hitzartzen zuten arte. Horri ultraaktibitatea deitu izan zaio eta azken lan erreformak gogor kolpatzen duen puntuetakoa da. Lege honen arabera, 2013ko uztailaren 7tik aurrera hitzarmen kolektiboan lortu ez den lekuetan, hitzarmen gabe geratuko dira, aurrekoen balioa indar gabe geratzen delako.

Egoera seguruenik ez da bate-tik bestera horren zorrotza izango. Enpresariak badakite oraingo legediak lehen baino hobeto

babesten dituela euren interesak eta, hitzarmenik ezean, eskuak oso zabalik dituela langileen baldintzak nahieran finkatzeko. Baina bestetik, badaki horrek su handia piztu dezakeela eta saiatuko da tentuz abiatzen.

Bestetik, legedi aldetik ere indefinizio maila handia dago, lan hitzarmenik egon ezean, legeak arbitraiak bultzatuko dituelako eta ez dagoelako argi judikaturan nola emango den orain arteko eskubideen eta hauen murrizketen arteko talkaren irakurketa.

Edonola ere, langileen eskubide murrizketaren fase berri batean sartua dago Espainiako langileria eta eskubide gainbera denbora kontua besterik ez da, behintzat murrizketa horien kontrako korrante sendorik eratzen ez bada. Honek bi iturri izan dezake: lehen instituzionala, hau da, lan erreforma berri baten bidez, lehengo egoerara itzultzea; bi, langile eta sindikatuen antolaketa eta borroka, lan hitzarmen duinak lortzeko.

Lan baldintza hobek, ekonomia garatuagoak, aberastasun banaketa handiagoa. Hori da historiak erakusten duen zirkulua

ETA INDAR HARREMANAK nola daude? Une honetan langileen eskubideen oso aurka. Europan Bigarren Mundu Gerraren ondorioz sortutako ongizatearen estuan, langile klaseek inoizko eskubide maila gorena lortu dute azken mende erdian. 1970eko urteetako bultzada neoliberalen mende, aldiz, eskubide horiek atzerapauso handiak jasan dituzte, bereziki

herrialde garatuenetan; eta Europan, batez ere azken krisi ekonomikoaren harira.

Alde horretatik, kapitalaren indarrak garaipen handiak lortzen ari dira. Herrialde garatuenetan, esaterako, errentaren banaketa da garaipen esanguratsuen, beheko klase eta klase ertinetatik aberastasunaren zati handia ari delako iragaten goi-mailako klaseetara. Borrokaren testuingurua hori da, kapitalaren indarrak erasoan eta langilariaren indarrak defentsan eta atzera egingez.

Oso egoera desberdinak daude Europa osoan, bai lurraldetik lurraldera, bai enpresatik enpresara. Klaberik garrantzitsuenak bi eremu nagusitan ematen dira. Batetik, enpresarena da borroka horren eremu naturala, langileak zenbat eta antolatuko are eta indar handiagoa negoziatiorako. Bestetik, eremu orokorra dago: hautatuko al dituzte herritarrek estatu sozialaren alde egingo duten gobernuak?

Azken finean, erabaki hauek guztiak ez dira teknikoak, askotan moztu nahi den moduan, politikoak baizik. Richard Nixonen Estatu Idazkari izan zen Henry Kissingerrek berak ere argi aitortzen du hori bere memoriaren Bretton Woodseko

sistema erori zen garaiaz ari denean: “Beranduago jakin izan nuen ekonomia politiken erabaki garrantzitsuenak ez direla teknikoak, politikoak baizik”.

Lan baldintza hobek, ekonomia garatuagoak, aberastasun banaketa handiagoa da. Hori da historiak erakusten duen zirkulua. ■

